

Heriotza La Fenicen



Heriotza La Fenicen

Jatorrizko izenburua: *Death at La Fenice*

Egilea: Donna Leon

Itzultzailea: Koro Navarro

Argitaratze urtea: 2010

Argitaletxea: Erein

MIKEL GARMENDIA

Eleberri honek Suntory saria jaso zuen Japonian eta, handik gutxira, Europako polizia-eleberrien idazle ezagunena, puntakoena, bihurtu zen Donna Leon eta orduantxe hasi zen famatzen gerora milaka irakurlek hain gertuko eta hain maite izan duten Brunetti komisarioa. Eleberri honetan ebatziko du bere lehen kasua eta hori, berez, lagungarri zaio irakurleari, ez baita pertsonaien iraganeko oihartzunik izango. Hauxe da lehen kasu hori: Helmut Wellauer orkestra-zuzendari ospetsua hilda azaltzen da Veneziako La Fenice antzoki famatuan, *La Traviata*-ren emanaldi batean, potasio-zianuroz pozoitua. Ikertzen hasita, Brunetti bera ere harrিতa gelditzen da ikusirik zenbat arerio zeuzkan zuzendariak. Wellauer hiltzeko nahikoa motibo zenbatak izan zezaketen, horra Brunettik bilatu eta aurkitu beharrekoa. Bilaketa horretan, beraz, susmagarri asko azalduko zaizkigu eta hala joango dira gauzak korapilatzen eta Brunetti, berriz, korapilo horiek askatzen. Korapilatze-askatze horretan aztarren bat edo beste badagoen arren, nahiko ezustekoa dugu amaiera, zeinera iristeko irrikatzen mantentzen baikaitu Leonek ondo lortutako tentsio-giro batean.

Donna Leonek berak esanda dakigu eleberri sozialtzat dauzkala berak polizia-eleberriak eta sozialagoak direla European Amerikan baino. Halaber dio oso litekeena iruditzen zaiola, emakumeak muturra sartu zaleagoak eta arazo pertsonaletan interesatuagoak izaki, eleberri beltzak idazteko "aproposagoak" izatea. Eta halaxe joango zaizkigu azaltzen eleberri osoan zehar, tramarekin batera, gaur egungo gizarteko arazo, kontu eta abarrak. Interesgarria iruditzen zait, esate baterako, Brunetti komisarioak bere arduradunaren gaitasunik eza nabarmenaren aurrean hartzen duen jokabidea, etsipenari eta liskarrari muzin eginez, halako eszeptizismo baikor batez aurrera jarraitzekoa. Dena dela, eta ikuspegi soziala izatea gauza bat da, eta osos bestelakoa, esango nuke, honelako esaldi erabateko eta ia mesprexuzkoak idaztea: "Bi hamarraldiz, bihotzeko aldikarietako kazetari nagusia izan zen Italian, eta Italia era horretarako informazio-iturri erregularra behar duen nazio bat da."

Trebetasunez harilkatutako trama eta idazkera arina, naturala, erraza ikusi diote eleberri honi *Kirkus Reviews* aldizkari amerikar ospetsukoek. Euskarazko bertsioaz ere beste horrenbeste esan dezakegu nahiz eta baduen niri bederen irakurketa zertxobait zaildu didan alderdi bat. Ez naiz sartuko zuzentasun/ez zuzentasun kontuetan, baina bai irakurle subjektibo gisa bestelako ordena batean nahigo nituzkeen esaldi batzuk seinalatzen: "Brunettik, argitzeko hura eskatu beharrean Santoreri...", "Tratamenduan egon dela azken asteotan ematen du." "Bertako biztanleriari zerbitzatzen zioten denda guztiak –farmaziak, zapata-dendak, janari-dendak– motel baina atzerabiderik gabe ari zirela denak desagertzen iruditzen zitzaion, ...".